## INGURUMEN JARDUKETARAKO SOZIETATE PUBLIKOA, IHOBE, S.A.

### Sozietatearen izena

Sociedad Pública de Gestión Ambiental, Ihobe, S.A.

### IFK

A01024223

### Izaera

Sozietate publikoa.

### Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

### Aurrekontu-araubidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

### Sorrera

Sozietatea eratu zen 1983ko urtarrilaren 26an emandako eskritura publiko bidez, oinarri hau izanda: 218/1982 DEKRETUA, azaroaren 8koa, Lurralde Antolaketa eta Garraio, eta Ekonomia eta Herri Ogasun sailburuen saloz, "Industria Hondakinentzako Bateango Enularaztegi bat jartzea Sustatzeko A.B." izeneko Akziokako Herri Baltzua sorrarazteko baimena emateari buruzkoa.

Geroago, Gobernu Kontseiluak, 1992ko urriaren 13an egindako bilkuran, sozietatearen izena aldatzea erabaki zuen, eta «Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, IHOBE, S.A.» (Ingurugiro Hobekuntza) izena hartu zuen, honako honek berretsita: 300/1993 DEKRETUA, azaroaren 2koa, «Sociedad Promotora para la Instalación de un Tratamiento Centralizado de Residuos Industriales, S.A. - IHOBE » izeneko baltzu anonimo publikoa sortzeko baimena ematen duen azaroaren 8ko 218/1982 Dekretua aldatzen duena.

### Sail-atxikipena

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

### JESN

7219 Beste ikerketa eta garapen esperimental bat natura- eta teknika-zientzietan.

### Helburu soziala

Sozietatearen helburua Gobernu Kontseiluak aldatu zuen 2010eko abenduaren 28an, akziodunen batzar nagusia eratuta, eta honako hau da:

- Ingurumenari buruzko eskumena duen Sailaren jarraibideen pean, egungo eta etorkizuneko ingurumen-politika garatzen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan jasangarritasunaren kultura hedatzen laguntzea, batez ere klima aldaketari, bioaniztasunari, lurzoruaren eta airearen kalitateari, hondakinei, ekoizpen eta kontsumo jasangarriari eta hiri-ingurumenari dagokienez.
- Ingurumenari buruzko eskumena duen Sailari ingurumen-politikak diseinatzen eta ezartzen laguntzea, bai eta ingurumenaren kudeaketa, kontrol eta berreskurapeneko jarduketetan laguntzea ere.
- Ingurumenari buruzko ezagutza sortzea eta zabaltzea, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan ekoberrikuntza sustatzea.

- Administrazio publikoekin, enpresekin eta herritarrekin batera jardutea, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren ingurumen-helburuak bultzatzen dituzten jarduerak egiteko.
- Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eremuan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuko 21.2 artikuluan jasotako eginkizunak betearaztea.
- Ingurumenari buruzko eskumena duen Sailaren entitate laguntzaile jardutea, sail horrek emandako diru-laguntzak kudeatzeko, indarreko araudia erabat betez.
- Euskadiko Autonomia Erkidegoan ingurumena babesteari eta hobetzeari lotuta egon daitezkeen beste guztiak.

## Sailkapena kontabilitate nazionalean

Eskualde Administrazioko Herri Administrazioak

## Kapital soziala

2.843.626 €

## Kapital sozialaren osaera

EAEko Administrazio Orokorra: % 100

## Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseilua da sozietatea ongien kudeatzen eta ordezkatzen duen organoa. Honako hauek dira ekitaldiko urteko kontuak egiten dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

| | |
|---|---|
| Jose Antonio Galera Carrillo jauna | presidentea. |
| Tomás Epalza Solano jauna | presidenteordea. |
| Alejandra Iturrioz Unzueta andrea | |
| Miren Itziar Agirre Berriotxoa andrea | |
| Estíbaliz Hernáez Laviña andrea | |
| José Luis Rodríguez Frutos jauna | |
| Xabier Caño González jauna | |

EAEko Sektore Publikoaren proposamenez izendatuta: % 100

## Urteko aurrekontuak

www.euskadi.eus

## Ekitaldiko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

Ikuskaritza-txostena, ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.

## Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

| | |
|---|---|
| Aktiboa guztira | 16.067.601 € |
| Ondare garbia | 14.825.472 € |
| Negozio-kopuruen zenbateko garbia | 1.832.742 € |
| Batez besteko langile-kopurua | 50 |

## Sozietatearen helbidea

Urkixo zumardia 36 - 6. solairua, 48011 - BILBO (Bizkaia)

## Web gunea

www.ihobe.eus